

## KOSTUEN EGITURA

Enpresa guztiek bezala, gure enpresak ere kostuak izango ditu. Kostu finko eta aldakorretan banatzen dira, hau da, beti ordaindu beharko ditugun kostuak eta guk erosten ditugun produktu kantiataren arabera kostuak.

Egia da, enpresa sortzeko kapital pribatua erabiliko dugula, lagun batek hasierako bultzada emango digulako, baina horitk aurrera guk ordaindu beharko ditugu kostuak eta galerak ez



edukitzen saiatu behar gara. Hau horrela izanda, hasieran gutxi salduko dugunez kostu total txikiak izaten saiatu behar gara ahalik eta diru gutxien galtzeko. Gure kostuak handiagoak izan daitezke, ospe gehiago lortzen dugunean eta gure produktuak jende gehiagok kontsumitzen dituenean.

Edukiko ditugun kostu finkoak lokalaren alokairua (erosten badugu, hipoteka ordaindu beharko genuke) eta hango argindar eta uraren fakturak izango dira. Hilabetero makina guztiei berrikuste informatiko bat emateak ere dirua kostatuko digu, gutako inor ez delako informatikan aditua eta enpresa bat kontratatu beharko genukeelako zerbitzu honetarako.

Kostu aldakorrek ordea, erosten ditugun produktuen prezioak izango dira, izan ere, geroz eta gehiago saldu, guk orduan eta gehiago erosi beharko dugu. Gainera, produktuen prezioekin askotan espekulatu egiten da eta nahiz eta gauza bakoitzak gutxi gora behera zenbat kostatzen duen jakin, prezio horrek zertxobait egin dezake gora edo behera, faktore desberdinen arabera.

Bukatzeko, gure enpresak ingurumen-kostuak ere sufritu ditzake, izan ere, gure euskal produktu asko naturatik datoz zuzenean. Lurraren emankortasunak, animalien ongizateak, hondamendi naturalek eta naturarekin zerikusia duten beste hainbat faktorek gure hornitzaileen ekoizkertasuna baldintzatzen dute eta honek produktu gutxiago erosi ahal izatea ekarri dezake.